

idekia, Ibon Sarasola euskaltzain laguntzaileari Gipuzkoako Aurrezki Kutxak babesturik gomendatzen zaion Hiztegi Arauemailearen asmoak zer diren aurkezteko.

Julio Abad Mata jaunak egin du biltzar honen aurkezpena eta ondorean Ibon Sarasolaren mintzaldia, euskaraz eta erdaraz, Hiztegi hau zer litzaken eta bere asmoak nolakoak diren agertuaz. Mintzaldiaren bukaran, Euskaltzaindiko idazkariak L. Mitxelena jaunaren gutuna irakurri du, bera ezin etorriaz idazkiz bere iritzia agertuz. L. Villasante euskaltzainburu jaunak agurrezko hitzak, hiztegiaren premia larria agertuz. Jesus Maria Ayestaran jaunak Aurrezki Kutxaren izenean agurrezko hitzak, eta azkenik Juan Egia jaunak Diputazioaren izenean.

Bukatzean Ibon Sarasolaren mintzaldia idazkiz zabaldu da batzarkideen artean.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - XI - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko azaroaren 26an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, J. Garmendia Larrañaga, S. Garmendia, J. M. Iriondo, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, L. M. Mujika, J. A. Retolaza, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dela.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urriko agiria onartzean, Irigoyen jaunak, bere txosteneko Oinatiko esku-izkribuari buruzkoan mendeak gaizki jarrita daudela, XV eta XVI mendeak alderantziaz. Zuzen jartzea eskatzen du.

Euskaltzainburuak, Antonio Arrue eta Fernando Aire "Xalbador" jaunen hil berria eman du, ondorean Antonio Arrue euskaltzain zenaren nortasunez txostentxo bat irakurriaz. Eta familiari gutunez atsekabea agertzea eskatzen du.

Euskaltzainburu jaunak, arautegiaren 33. artikulua eskatzen duen bezala, euskaltzain oso baten hutsarte agerrarazten du, izendapen berri-rako proposamenak eskatuz.

J. M. Aranalde jaunak Xalbadorren nortasuneko txostena irakurri du.

a) HAR-EMANAK

Abenduaren 19an Arrasaten J. Zaitegi euskaltzain laguntzaile jaunari egingo zaion omenaldiaren berri eman da. Euskaltzaindiko bertara joateko gomit egiten zaie.

EUSKERA, XXI (1976) zenbakia inprimategian sartzeko gertu dagoela aditzera eman da.

Euskarazko literatura sariketaz, urteroko liburuxka baten argitaratzea premiazkoa ikusten da, bakoitzaren xehetasunak eta arautegia agertuz.

Madrid-eko Universidad Complutense-koak, lehenago euskal eleberriri buruzko lan bat eskatu ziguten eta orain antzerkiari buruzkoa.

Bizkaiko Diputazioko lehendakariaren gutuna, bertako Junta de Cultura de Vizcaya-rako euskaltzaindiaren ordezkari bi eskatuz. A. Irigoyen eta X. Gereño izendatzen dira.

Ministerioak argitaratu duen "Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca" liburuaren ale bat erakutsi da, oraindik ez dakigu zer moduz zabaltzeko asmoa duten.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du. Emaile diren N. Alzola, J. M. Satrustegi eta P. Etxeberría jaunei eta Gero argitaldariari eta Durangaldeko Gerediaga Elkarteari eskerrak ematea erabaki da.

b) EUSKAL IZENDEGIA UGARITZEAZ, GAURKOTZEAZ ETA ARGITALPEN BERRIAZ

J. M. Satrustegi jaunaren txostena. Gai hontaz jaso zituen iritziak eta oharra adiarazi ondorean bere aburuak agertu ditu, era berean goizeko bilkuran egin diren azterketen berri emanez. Historian zehar eta ohituraz etorri zaizkigun izenez gainera haintzat hartuko dira gure literaturan eta mitolojian erabili direnak ere.

d) GOIZEKO BILKUREN BERRI

Goizean, euskaltzain osoak, izendegi batzordekoak eta irakaslego batzordekoak bildu dira. Izendegiari buruzkoan J. M. Satrustegi jaunak emanak ditu zenbait argitasun. Irakaslego batzordean etsamina egunetaz, ikastaroetaz, ahozko etsamina egitearen komenientziaz eta batzordeko esku-artereko gaietaz mintzatu dira.

e) EUSKALTZAINDIARI, ANTZERKI SARIKETERI BURUZ

Piarres Larzabal jaunaren txostena, Emil Larre jaunak irakurria. Bere zenbait ideia gai hontaz adiarazi ondorean antzerki batzorde bat izendatzeko premia agertzen du, eta beraien artean txostenaren kopia zabalduz gero batzar baterako deia egin, ideiak berri eta bateratzeaz bide berria markatzeko.

f) ODON DE APRAIZEN OMENEZKO BATZARRA

Euskaltzainburuak aditzera eman du, datorren hileko batzarra Gas-teizen izango dela, Odón de Apraiz ohorezko euskaltzain jaunaren omenez, berak 80 urte aurtan bete dituelako. Batzarra, Arabako Foru Diputazioan eratua izanen da, abenduaren 27an.

H. Knörr-ek eman ditu batzar honen xehetasunak: Egun horretan lehen liburu bat aurkeztuko da, O. de Apraizen lanen bilduma. Geroago bigarren liburu bat, orotariko lanez omenalditzat eskaintzen zaiona, biak Arabako Kultur Kontseiluak argitaratuak.

Batzar eguneko hitzaldiak, asmoz: Euskaltzainburuaren agurra; J. M. Barandiaran eta L. Mitxelena jaunen txostenak.

Ondorean, irakasle titulu berriak banatzea.

g) OROTARIK

J. M. Iriondo jaunak Banka edo diru-etxean hiztegi berezi baten premia agertu du. Hontaz, Aurrezki Kutxa, Elhuyar taldea eta inguru horietan kezkatuak dabiltearen eskaintzearen iritzia agertu da. Adibidez, beste batzuen artean Jose Agustin Arrieta, Aurrezki Kutxa Probintzialak bere enplegatuen artean euskararen irakaskuntzetarako izendatua duenaren bidez, R. Badiola, Euskaltzaindian itzulpen lanetan diarduanari "Banco de Bilbao" k banka hiztegi bat euskaratzeko bidali dionaren bidez, etab. Donostian bilkura bat egingo da eta J. M. Iriondo izendatzen da Euskaltzaindiaren izenean bertara joateko.

J. M. Aranalde jaunak, herrietan Xalbadorren omenaldiak egiten hasi direla eta herriz herri egin beharrean Euskal Herri oso mailan egiteko asmoa dagoela agertu du eta horretarako Euskaltzaindiaren babesa eskatzen du. Ontzat hartu da. Baita ere, Xalbador euskaltzain laguntzaile izendatzeko proposamen hura, arautegiaren araberez.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - XII - 27

Gasteizen, Foru Diputazio jauregian, 1976ko abenduaren 27an, goizeko 11tan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. M. Barandiaran, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; N. Alzola, I. Baztarrika, J. A. Etxebarria, J. Fernández Setien, J. Goikoetxea Maiza, J. M. Iriondo, E. Knörr, J. L. Lizundia, P. Martín, J. A. Retolaza, M. Ruiz Urrestarazu, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaileak, J. San Martin idazkari dela.

Davant, Diharce, Hiriart-Urruty, Larzabal eta Mitxelena jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Azaroko batzar agiria onartu da.

HAR-EMANAK

Euskaltzainburuak bigarren deia egiten du, arautegiaren 33. artikularen araberez, A. Arrue zenaren hutsunea betetzeko proposamenak eskatuz.